



# AURELI AUGUSTIN DEUNAREN AUTORPENAK

## AMAIRU IDAZTITAN

### I IDAZTIA

#### I ATZALBURUA

1. *Andia zara, Jauna, ta oso goralgaria, andia zure almena ta neurgea zure yakituria.* Eta goralduegin gura zan zure irazaki-zatitxoa dan gizonak, eta bere ilgortasuna aldean bilaldean daroan gizonak, ta bere obenaren ziñalbena ta *Jaungoikoak afoai aufka egiten dautsena*'ren ziñalbena aldean inguruan daroan gizonak; eta oraitio be goralduegin gura zau zeure irazaki-zatitxoak gizonak. Zu zirika zagokiguz, zu goratzea ats-izan dakigun, zeureganako egin ginduzuzan-da; ta gure biotza artega dago, zeugan atsedena idoro arte. Jakin eta aituzo egistazu, Jauna, zein dan lenago, ala zeuri oles-egitea, ala zeu goraltzea: eta ala zeu yakitea, ala zeuri oles-egitea.

2. ¿Nok oles-dagitzu baña zeu ezagutzeke? Zeu ezagutzeke baten ordezes-terri oles-legikio. ¿Ala zeu ezagutzeko

oles-egiten yatzu? ¿Zelan baña oles-egingo dautsoe siñetsi eztabenari? ¿Edota zelan siñetsiko dabe, iñok zabaltzeke? ¿eta goralduegin dabe Jauna bere bila dabilizanak? Bila ibili ezkeroridoroko dabe ba, eta idoro ezkeroridoroko dabe. Oles-egina bilatuko al zaut, Jauna; eta zeugan siñestuaz oles-egingo al dautzut; itz-bidez zabaldu zayakuz-ta. Oles-dagitzu, Jauna, niri emon zeunstan siñismenak, zuk zeure Semea'ren gizatasuna-bidez eta zure itz-zabaltzalea-bidez bañuratu zeunstan siñismenak.

#### II ATZALBURUA

1. ¿Eta zelan oles-egingo dautsot neure Jaungoikoa'ri, neure Jaun eta Jaungoikoa'ri? Oles-egingo dautsodanean ba neugana oles-egingo dautsot. ¿Eta non nigan lekurik Jaungoikoa bertara etofteko? ¿Nigan Jaungoikoa, ortzi-lufen egilea Jaungoikoa bertoratzeko lekua? ¿Bai dago ala, ene Jaun eta Jaungoikoa, niregan

zeu aftu zindukezanik ezer? ¿Ala zeuk egin zebazan ortzi-lufak eta eurotan ni be -aftzen zabez?

2. ¿Ala zeubarik danik ezer elitzake-lako, dan orok zeu aftzen ete-zau? Beraz neu be ba-naz-ta ¿zer dala-ta nagotzu nigana etofteko eske, neugan ezpa'zengoz, ezer enintzakean au? Oindokoaren ena-go ba gaiztokian, eta ofaitiño zeu an be ba-zagoz; *gaiztokira yatsi ba'nadi* ba, *zu an zagoz*. Beraz enintzake ezer, ene Jauna, ezetara be ezer enintzake, neugan ezpa'zengoz. ¿Ala oro zeugandik, zeure-bidez, zeugan dira-ta, obeto esateafen enintzake ezer, zeugan ezpa'nengoke? Onan be bai, Jauna, onan be bai. ¿Nora oles-dagitzut, ba, neugan zagozan ezkerok? ¿Edota nondik zatofkez neugana? ¿Nora alde-dagiket ba ofrtzi-lufetatik, *nik ortzi-lufak betetzen dodaz* esan eban Jaungoikoa, Jaungoikoa andik neugana etofi dadin?

### III ATZALBURUA

1. ¿Ala aftzen ete zabe ortzi-lufak eurak betetzen dozuzalako? ¿ala eurak beteta gañezka dagizu, aftzen etzabelako? ¿Eta ortzi-lufak beteta gañez dozuna nora utsetu ta jarioten dozu? ¿ala oro aftzen dozun ofek eztozu iñok aftu-beafik: betetzen dozun oro, aftuaz betetzen dozunekero? Aftzen zaben ontziak etzabe ba geldikoftzen, eurak ausiafen zeu etzara yarioten-da. Eta guregana yarioten zareanean be, etzara zu zatzazana, geu eragiten gozuzana baño: eta zeu etzara sakanatzen *ura lez*, zeuk geuk batu egin baño.

2. Oro betetzen dozun ofek baño, oro zeuk oso ofek betetzen ete dozu? ¿ala orok zeu osorik ezin aftu zabelako, zeure atala artzen dabe, ta atal ber-bera orok

batera? ¿ala gauza bakotxak atal bakotxa, bakotxak berea, eta aundiegoak aundiegoa, txikiegoak txikiegoa aftzen dabe? ¿Beraz zeugan atal aundiegoak eta txikiegoak dozuz? ¿ala toki oro osorik zagoz, eta ezek etzau osorik aftzen?

### IV ATZALBURUA


1. ¿Zer zara, ba, ene Jaunoi? ¿Zer afen, Jaungoiko Jauna baño? ¿Nor, ba Jauna ez beste Jaungoikoa? ¿Edo-ta nor geure Jaungoikoa ez beste Jaungoikoa? Zu gorengoa, onena, altsuena, alorodunena, efukiofena ta artezena, ezkutuenena ta aufekoena; edefena ta indaftsuena; iraunkofa ta ulefkatxa; aldaeziña ta oro aldatzen dozuna; iñoz bez gaztea, iñoz bez zafa; oro bafiztetan dozuna, ta afoak, eurak igeftzeke, zartzen dozuzana; beti diñarduzuna, beti geldit zagozana; beti batzen, eta ezereen beafbarik: eroaten eta betetzen, eta jaboten; irazaten eta alikatzen eta osatzen, biña zabiltz ezereen beafik ez-ta.

2. Maite dozu, etzara baño asaldatzen, ardurea dozu, ta ziuft-bildurgeta zagoz, garbai zara, ta eztozu min atseka-berik, asafatzen zara, ta bare zagoz, egitenak aldatzen dozuz, erabagirik baño eztozu aldatzen, aurkitzen dozuna biraftzen dozu, ta iñoz eztozu galtzen, iñoz be etzara txiroa; ta irabaziak poztuten zau, iñoz be etzara zekena, ta irabaziak emonazoten dozuz, zofez gañera emoten jatzu, zofdun izan zadin, eta, nok dauko ezer zeurea eztanik? Zofak ordaintzen dozuz, iñori zofik ez-ta, zofak azketsi daroazuz, ezer galtzeke. Eta zer diñogu, ene Jaungoikoa, ene bixia, ene eztitasun deuna? Edo-ta zer diño zutzaz diñonak? ¿Eta zutzaz ixilik dagozanen efukaña, itzontziak izkeak dira-ta!

## V ATZALBURUA

1. ¿Nok idoroazoko daust zugan atsendena? ¿Nok lortuko daust zuñeure biotzera etofi ta berau moskoftzea; nik neure gatxak aztu ta zeu neure on bakañ ori besaitean estututea? ¿Zer zayataz? Eñuki, itz dagidan. ¿Zer nazatzu nerau, maite zagi-dazala agintzeko, ta egin ezpa'dagit nigaz asafatzeko, eta zoritxañ itzelakaz zema-

2. Estua da nire gogoko etxea, nasaitu egizu, zeu bertora etofteko, galtzer (yauzi-agiñik) dago, bafiztau egizu. Zeure begiak zek mindurik asko dauko, ba-dautoft eta ba-dakit. ¿Nok garbituko dau banna? Edo-ta zeu ez nori besteri diadañ egingo dautsot? *Neure ezkutuetaz* garbitu nagizu, Jauna, ta iñorenetaz azketsi zeure otsein oneri. *Siñisten dot eta ofexegaitik itz dagit*, zeuk dakizu, Jauna.



Bétharñam ta Lestelle (1903)

tzeko? Zeu maite ezpa'zaut, berau zoritxañ txikia dot ala? ¿Nirearen zoritxañ! Esan egistazu zeure eñukiñen, ene Jaun eta Jaungoikoa, zeu zer zayatazan. *Esan neure gogoari. Zeure osasuna nozu.* Olan esan, dautzudan. Amezan, Jauñ a, zeure afean neure biotzeko belafiak, idi-gi egizuz, *eta esan neure gogoari: Neu nozu zeure osasuna.* Abots (gedañ) onen yafai noake, ta oratuko zaut. Zeure arpegia ez egistazu ostendu (ezkutau): iñ enadin, ilgo naz, bera (arpegia) dakusdantzat,

¿Ala neure aufka neure obenak afeztik eztautzudaz esan, ene Jaungoikoa, eta zuk eztaustazu azketsi neure biotzeko bidegabekeria? Egia zaran oferi enoatzu auzian aufka egiten: *eta nik eztok atzipetu* (ziria sañtu) *nai neure burua, neure bidegabekeriak berè buruari güzufa esan eztagion.* Enago, beraz, auzian zeure aufka: *eta izan be bidegabekeriak azteftu ba'dagizuz, Jauna, nok euts'n zeuri Jauna?*

Lafakoetxea'ñaf Bedña Jon, L. A. L.  
(Jañaituko da).



XIV 'Urtia  
256'gn.zenbakija

\* GOTZANAREN BAIMENAZ \*

Zornotza'n  
1925'ko Bagila-1

# AURELI AUGUSTIN DEUNAREN AUTORPENAK

## AMAIRU IDAZTITAN

### VI ATZALBURUA

1. Ofaitio be baña luña ta autsa nazan auni zeu erukiór ofen aúfean berba egiten itxi egistazu. Ofaitio itxi egistazu berba egiten, aof zeure erukiari, ez bañe dagistan gizonari berba dagitsot-eta. Eta zuk bañe dagistazu ufean, biurtuta baña erukituko zayataz. Zer da, ba, ene Jaun eta Jaungoikoa, nik esan nai dodana, ala bixitz ilgoña ala eriotz bizi deituko dautso-dan eztakidan aonetara nondik etofi nintzan eztakidala baño? Aldian aragiz eta aragian eraldu ninduzun, eta neure aragi aunen gurasoi entzun neuntsenez zeure erukiaren atsegiñak aitu ninduben; ni nerau enaz oroitzen-da. Giza-esnearen atsegiñak aitu ninduben beraz. Eta neure ameak, edo-ta neure inudeak eurak ezebezan betetzen euren bulafak, zeuk zerofek baño; zeuk, Jauna, emoten zeunstan euren bitartez seintzaroko yanaria zeure erabagiaren arauz eta gauzen ondoraño eltzen diran zeure *yakituri*-aberastasunen

arauz. Zeuk emoten zeunstana baño geiago ez nai izatea be, eta ni alikatzen nindubenai zuk emoten zeuntsena niri emon-naia. Zeugandik ugeri eukiena lera zuzenez emon nai eustien-da. Ona yaken ba eurekandik etofkidan ona, eta ez etofkidan eurekandik, euren bitartez baño. Eta izan be zeugandik, Jaungoikooi, on oro, ta neure Jaungoikoa'gandik datofkit osasun gustia. Eta au geroago aitu ta oafu neban, zeuk bafutik eta atatik emoten daustazuzan on aonexen bidez didaf eginda. Orduan ba ba-nenkian edosten eta atsegiñei amore-egiten, atsegiñetara yausten, neure gorputzeko neke-miñakaitik negaf-egiten, besterik deusik bez, geroago bañe egiten be ikasi neban, lelengo lotan, gero itxañik be bai. Gauzok nigan onan yazo zirala azaldu dauste, ta beste umeak be olan egin daroela dakuñan ezkerro, siñistu egin dautset, nik neronek orduko nire gauzen oroipenik eztaukat-eta.

2. Eta ara geldi-geldi non nengoan

oartzen neban eta neure gurariak egingo eustiezanai agertu gura neuntsezan, eta ezin neban, aik neure baruan, oneik bafiz atan (kanpoan) egokidazalako, eta oneik ez eukien oafmenik neure baruan sartze-ko. Beraz neure gorpuzkiei ereiten neuntsen eta abotsak (abo-ots) egiten nebazan, neure gurarien antzeko ikufak al nebazan banakak eta al neban eraz, antzik eneuntsen emoten - da. Eta uleltuten ez eustielako ala gatzik ez egiteafen eskatzen neban egiten ezpa-eusten asafatu egiten nintxaken neure esanera ez egozan nausiei, eta neure otsein etziran azkeai (yopu etziranai), eta eurekaz aspeftzeko negaf egiten neuntsen. Señak olakoxeak dirala azteftu dodazan señakandik ikasi dot, eta nerau be olakoxea izan nintzala eztakien señok, dakien nire azitzaleak baño geyago, irakatsi dauste. Eta ara, nire seintzaroa antxiña il zan, ni baño oraiñdik be bizi naz. Zu baño, Jauna, zu beti bizi zara ta zeugan ezer ezta ilten: aldiak asi baño len, eta *lenago* esan leik-kean edozer bera baño be lenago zara ba zeu, eta Jaungoikoa zara ta egin zeban ororen Jauna. Eta zeugan dirae gauza igeskoft gustien antz-erak, eta gauza aldakoftak: eta zeugan bizi dira adimenbako ta aldizkoen betiko dantasunak (1). Jaungoikooi, esan egistazu zeure eskale auni eta efukioft ofek zeure efukafi auneri esan egistazu ia neure seintzaroa neure

(1) Gizona zegaitik da gizon eta ez adibidez zaldí? Gizona ta zaldia bardiñak eztiralako. Gizonak bere izamena dauko, berari bakafik dagokona, ta gizon gustieri ta gizonari bakafik dagokon oferi *gizonaren dantasuna* deritxogu, gizona gizon ofexegaitik dalako. Zer da, ba, gizon gustieri dagoken ori? *Abere adimendun* izatea. Au dala-ta adimendun abere oro gizona da, aberea ala adimena kendu ezkeru eztogu gizonik, abere utsa ala gogo utsa baño. Beraz gauza bakotxak bere *dantasuna* dau.


aldi ilen baten yafai etofí zan, ala aldi ori neure amearen sabelean igaro nebana dan, aofetaz be zerbait esan dauste ba ta neronek be ikusi izan dodaz emakume ernariak.

3. Eta aldi ofen aurfetik zer, ene ezti-tasuna zaran ene Jaungoikoa? Ba'nintzan ainbaten, ala noronor? Zeu ez beste eztaukat ba aonek nok esan, aitak eta amak be ezin esan eusten, *ez bestek berak asmau daulako, ezta neronen oroimenak be*.

Ala baft dagistazu onango gauzak itanduten dautzudazalako dakidazan gauzekaitik zeu goraldtu ta aintzalduteko agintzen daustazun ofek? Goraltzen zaut ortzi-lufean Jaunoi, eta aintzaltzen zaut neuk oroitzen eztodazan neure lelengo aldi ta seintzaroataz, eta gizonak beren orduko gauzak besteakandik ayeruz (bada-ezpadaz) yakitea erabagi dozu, eta emakume zirtzilén esanera be bere buruataz gauza asko siñistu eragin dautsozuz. Orduan be ba-nintzan ba, ta bizi nintzan; eta neure seintzaroaren amairantza neure baruko oafkunak besteai agertzeko ikuf-bila be asi nintzan. Nondik, Jauna, onango abere au, zeugandik ezik? Iñor izan daiteke bere buruaren egile ala? Ala beste lekuen batetik datofkuzanen bat zan ofetatik -zeaf izatea ta bizitea datofkiguzantzat? Goren izan eta goren bizi berbera zara ta zeuri izatea ta bizitea etxatzuz gauza bi, etxatzuz *bata* ta *bestea*, biek bat berbera baño, ta zu ez bestek egin ete ginduzan? Gorengoa zara, ba, ta etzara aldatzen; eta zeugan ezta igaroten gaurko egun au, eta ofaitio be zeugan digaro, oneik gustiok be zeugan dagoz-ta. Zeugan ezpa' zeunkoz ba, igarobiderik eleukie. Eta *zure urteak eztira amaituko-ta*, zure urteak gaurko eguna be. Eta zeure gaurko eguna-zeaf igaro diran gure ta gure asa-

baen urteen ugeria! eta zeure egun ofek emon dautse neuria ta izan diran lez izatea. Eta oraindik geiago be digarokez, eta neuria ta zelan-edo-alan izatea dakke (aítuko dabe). *Zeu bafiz beti zerori zara:* eta bialko gustiak eta geroagokoak, atzoko oro ta lenagoko gaur dagikezu, gaur egin dozu. Niri zer? Batenbatek uleítzen ezpa'dau, bera be poztu bedi neugaz eta besa (esan begi): Au zer da? Poztu bedi

seintxoa bera be. Nok gogoratzen daust? ala edozein seintxok, neronetaz oroitzen eztodana beragan dakust eta? Zer zan ba orduan oben? ala negafez bulafa joranez eskatzen nebalako? Ba orain negaf ba' dagit ez bulafa yoranez gura dodalako, neure urteai dagoken yanaria baño, zuzen be zuzen bafe ta agirika egingo dauste. Beraz orduan gauza akafgafiak egiten nebazan, baño akafa aituteko gai enin-



Bétharam (1863). — † ikufak darakus Mikel Zorundunaren gela

onan be ta naiago izan begi au idorobarik zeu idoro, idorota zeu idoro ez baño.

## VII ATZALBURUA

1. Entzun Jaungoikoa: ¡Gizonen obenena! Eta gizonak diñoz oneik, eta efuki zatxakoz: zeuk egin zeban-da, eta oben-ge egin zeban. Nok gogoratzen daust neure seintzaroko obena? Zeure aúfean eztago ba obenaz loitubakorik iñor, ezta lufean egun bat bakafik bizi izan dan

tzan-da, ez ekanduak, ez egokitasunak ez eben isten niri akaf egiten. Oneik gustiok aziaz zusteikatu ta yaurtiten doguz-ta. Eta eztot ikusi iñor, zezer garbitzen diñarduala, yakiñez gauza onik yaurtiten. Ala negafez eskatzea, baita geure kalterako emongo yakuna be: geure esanera ez egozan gizon azkeai, nagusiei eta gurasoai gafatz asafatzea; eta ganera zufago ziran asko, guramenaren ikufera men-egiten ez-euskuelako, yo ta, al gebala, gatx egiten alegintzea, geure kalterako

egingo ebezan aginduek betetan ezebeza-lako; ori gusti ori aldi atarako ona zan? Beraz señen gorpuzkien makaldasuna da efugea, ez gogoa. Neronek ikusi ta oafikusi dot ume bekaiztua, oraindik itzik egiteko etzan gauz, eta zurbil eta biotz mingotsagaz begiratzen eutson bere ugazkideari. Nok eztakiz oneik? Eztakit zeren bidez, amak eta inudeak kentzen ei dabez akatzok. Efugetasuna ezpa'da ugeri darion ugatz-itufian, laguntasun-bea-bea-beaean aurkitzen *danak* eta a yanari bakařagaz bizi danak ugazkiderik ez nai izatea be. Eta bigunto eroan daroaguz señen gauzok, ez utsak eta txikiak diralako, adiñean auferatuaz ondatuko diralako baño. Eta au onetsiařen, ofek akatzok eurok ezin eroan doguz arřegatzeke, zařagoen bategan aurkitzen ba'doguz. Beraz, ene Jaun eta Jaungoikoa, zeuk emon zeuntsozan señari bizia ta soña (soin au, dakusgun letxe, oarřenakaz atondu zeban, gorpuzkiak alkafi erantsita egin zeban, orkoiařagaz (etxureagaz) edeftu zeban, eta bizia ugaritzeko ta bere osotasuna yaboteko irafi zeuntsozan bere igikun gustiak), eta oneikaz zeu goraltzeko agintzen daustazu eta *zeu aintzaltzeko ta Gorengo ofen izenaren aintzaz ereskin otsez abestuteko*. Oneixek bakafik egin ba'zenduz be Jaungoiko aloroduna ta ona zindekez zu-ta: zeu ez bestek inok ezin egikezan; zeugandik datoř neufi ta era oro, ta zeuk edef-edef ofek eraldu dozu oro, ta gauza gustiak lagiz eraldu dozuz.

2. Bizi dodanik oroitzen eztodan, inori siñisten daustodan, eta igaro dodala beste señakandik ayeruz (ayeru ziñisgarřiz baña) ezautu dodan a neure bizi-aldia lotsa naz ludi aonetan egin dodan bizialdiari ezafren. Nire oroipeneko ilunbeai begiratuezkero, ba, neure bizialdi ori ta arako neure

amearen sabelean igaro nebana bařdiñak dira. Eta bidegabekeriz sortu ba'ninduben, eta neure ameak sabelean obenetan alikatu ba'nindun, non ařen Jaungoikoa, non edo-ta noz zeure otsein au Jauna'ri efuge izan nintxakon? Baña aof aldi ori alde batera isten dot. Eta izan be zer niri bere lořatzik oroitzen eztodan bizi-aldi ofegaz?

## VIII ATZALBURUA

1. Señalditik (1) onantzako bidea-zeaf ez ete nintzan eldu umeařora? Edo-ta obeto esateko, etxatan etofi berati seintzaroren yafai ta lekuko? Eta ak ez eban alde egin, nora egin eban ba? Eta ofaitio inon be ezegoan. Enintzan ba itzik egiten eneban seña, itz egiten neban umea baño. Au oroitzen dot, eta itz egiten zelan ikasi neban gero oafu neban. Ez eusten ba irakatsi gizon nagusieřoak, irakaspideren baten laguntasunaz arauak-eta irakatsita, geroxeago eleřtiak lez, neuk neronek ikasi baño; neuk neronek, Jauna, zeuk emon zeunstan adimenagaz intziriz, abots askotarikoakaz eta gorputz-igikun (igitu =eragin) askotarikoakaz neure biotzeko oafkun-asmakunak agertu nai nebazan, guramenari men-egiteko. Ezin agertu neban baña nai neban gustia, ezta nai neban gustiei be: eurek gauzen baten izena esaten ebenean, neure oroimenari sakařtuten neuntson, eta a itza esanaz batera gorputzari ainbaterantza eraiten eutsoela ikusten neban, eta gauzea adirazo-naiaz


(1) Eřomatařak giza-bizitzan sei aldi berezi edo banantzen ebezan, eta *infantia* (yafotzarik 7 urtera), *pueritia* (7-14), *adolescencia* (14-28), *juventus* (28-50), *gravitas* (50-70) eta *senectus* (70'tik eriotzaraño) eresten eutsen, eta guk sei aldi ofei euzkeraz *seintzaroa*, *umearoa*, *mutilaroa*, *gastearoa*, *elduaroa* ta *zařtzaroa* deitzeko eskubidea dogula deritxat.

eurak egiten eben abotsa zala a gauzearen izena eukiten neban. Eta zeozer erakutsi nai ebela gorputzaren igikun edo eraikeretatik agiri zan; eraikera edo igikunok efi gustien berezko izkuntzea lez dira, ta izkuntz au arpegiagaz eta begien igikunagaz egiten da, baita beste gorpuzkiek igituta be, ta igikunok egiten diran artean gogoko oarkuna adirazo nai daben abotsak eginda, zeozer eskatu, loftu, yaurtin edo-ta egiteko. Olan ba itzak ikuf bakotxean euren lekuetan imlnita, eta

safitan entzunda, apufka-apufka igeften neban zertzun ikufak ziran, eta aboa itzotara ezita, euron bitartez neure gurariak agertzen nebazan. Aolan ba neure gurariak agertzeko neure bizikideakaz ikuf bafdiñak nebazan, eta gurasoen agintzapean eta gizon nagusiegoen esanbean sakenago ta bafurago sartu nintzan gizabizitzako gizabatz ekaitzuan.


**Lafakoetxea'faf Bedita Jon, L. A. L.**

*(Jafaituko dau)*



**Ibafeko eliza (1900)**





# AURELI AUGUSTIN DEUNAREN AUTORPENAK

## AMAIRU IDAZTITAN

### IX ATZALBURUA

1. Ene Jaungoikoa! ¡Nik an (gizonen artean) igaro nebazan zoritxar eta laidoak! Niri, ba, umea nintzala, arau artez eta zuzentzat emoten eusten, ludi onetan urten eta galentzen alegintzeko esaten eustenai men-egitea, emen ludi onetan gizonen aintza ta entzutea ta guzuzefzko ogasunak noberaganatzeko egokiak diran eriti iztsuetan urten eta galenduta.

Andik ikastolara bidali ninduben, elef-tiak ikasten, eta eurok ze onura eukien enenkian txiro aunek; eta ofaitio epel-txoago ikusten baneban, zigofka azlintzen nenduben, au nagusiak goraldtu egiten eben-da. Eta geure aufetik bizi izan ziran askok bide neke-naigabetsuak asmau eta eraldtu ebezan, eta eurak zeaf igaroazoten euskuen, Adama'ren seme-alaboi nekea ta miña ugarituta.

2. Aurkitu gebazan baña, Jauna, zein otoi egiten eutzuen gizonak, eta geuk be eurekandik ikasi geban, zeu—al gebanez —gauza aundiren bat etsita; geure oafmenak asmau ezafen geuri entzun eta urgazi zengikeguna. Umea nintzala asi nintxatzun ba otoi-egiten ene erdokia ta laguntzea zaran oferi, eta neure miñeko lokafiak

zeuri oles egiteko uratzen nebazan; eta ez leia txikiagaz, ikastolan jo enengien otoi egiten neuntzun. Eta zeuk entzun gof egiten zeunstanean—eta au etzan neure kalte ta erotasunerako—nire orduko gaitz aundi ta aztunakaitik, nire zigofkadakaitik, bafe egiten eben gizon nausiegoak, eta gatxik etofi ekidanik nai ez eben neure gurasoak eurak be. *Ekuleus, atzazalki* (1) ta onetariko beste onazkai askori iges-teko ludiaren basteif gustietatik bilduf andiegaz eta sutsu otoi egiten jatzu, Jauna, eta iñok (au erokeriak be ba-daki egiten) maite ete zau, iñok ete dautzu zaletasunik, iñor ete dagotzu maitasun samufez erantsita, iñok ete dautzu, guri umeoi irakasleak jasan (igero) azoten euskuezan onazeai geure gurasoak bafe egiten eutsen lez, iñok ete dautzu aik neke-onazeak ain gitxi be etsita, eurei bilduf ikeragarfia dautsenai bafe egiterañoiko maitasun bero-gaftsurik? Ba guk ezkeuntsen bilduf gi-

(1) *Equuleus* eta *ungulae* (atzazalkiak) eromatafenaftan, eurekaz min emonda miñen-miñez zerbait autoftu eragiteko asmautako onazkai edo mingaiak ziran, eta bilduf andia jaken eurei, batez be bein noberari egoki ta ezari ezkeru.


txiego geure neke-oñazeri, edo-ta euroi igestearen ezkeuntzun epelago otoi egiten, eta ofaitio be uts eta oben egiten gaban, agintzen euskuen baño gitxiago idatzi ta irakufita, edo-ta elefietzaz gitxiago oldoztuta.

3. Ezkeban, ba, Jauna, oroimen ala adimen gitxieg be, aldi atarako ofeitaz naikoa emon zeunskun-eta, guri baña jolas-kirolak atsegin jakuzan eta gero aik (irakasleak) olan aspeftzen ziran gugaz. Nagusien tentelkeri-iñozokerlei garatzak deritxe, umienak bañiz alakoxeak izanafen, zigoftau egin daroez nagusiak; eta iñor ezta efukitzen umeakaz ala areikaz, edo-ta bitzuekaz. Gauzen esle (epaile) zuzenen batek ni zigoftau ninduenan onetsi ezpa'dai, umea izanik nik pelotan egiten nebalako, ta kirol (yoko) ori gero eurekaz motzago kirol-egiteko elefietak ariñego ikasteko eragozpide jatalako. Ni zigoftetan nindunak beste ainbeste egiten eban, ba bere irakaskideren batek, ausitxoren baten, gañetik egiten ba'utson, beaztun eta asafe geiagok efetan eben, ni pelotan pelotakideak azpiratzen nindunean baño.

## X ATZALBURUA

1. Eta ofaitio be nik uts eta oben nengian, bakaf-bakafik oben eraltzailea ezik gauza gustien izanazotzailea ta eraltzaile zaran ene Jaun eta Jaungoikuoi. Ene Jaun eta Jaungoikuoi, uts eta oben nengian gu-

raso ta irakasle aen aginduak bete ezagaz, euren niretazko uste-asmoak gora-bera, nik ikastea nai eben elefietok, nik uste ta asmo onakaz ikasi ta gero ondo ebali nengikezan-da. Enintzan jagiten ba euren aginduen aufka, gauza oben maitasunafen, kirolen maitasunafen baño; kirol-bufuketako gurenda afoak eta neure belafiak guzufeizko ipuñakaz azkuretu ta atsegin-tzea maite nebazan, aolan geroago ta bi-ziago azkure izan eitezan, nagusien ikuskizun eta kirol galtzoritsuetarako jakingura berberak begiak-zeaf argi eginda (1); eta nagusi-kirolak asmau ta eraltzen dabezanen zintzotasun - nausitasuna ain aundia dala-ta, ia gustiak opa dautse berau euren semetxuai. Eta ofaitio be semetxuok ikasketan bidez olango kirolak asmau ta eraltzera eldu daitezala nai dabe-ta, semetxuok irakaslak zigoftetea gogoz eraten dabe, olango ikaskizunak ikasten galazoten ba'dautse. Gauzoi erukiz begiratu, Jauna, ta azkatu gagizuz oles dagitzugunok:azkatu oraindik oles eztagitzuenak be, oles dagitzuentzat eta azkatu dagizuzantzat.



# AURELI AUGUSTIN DEUNAREN AUTORPENAK

## AMAIRU IDAZTITAN


### XI ATZALBURUA

1. Geure afokeriagana yatsitako, geurre Jaun eta Jaungoiko zeure Semeak abindu euskun betiko bizitzearen bafi oraindik umea nintzala entzun izan neban-da, eta neuregan bere kurutzearen ikufa egiten neban, eta bere gatzagaz neure buruari gatz-egiten neuntson, zeugan itxaropen aundia izan eban neure amearen sabeletik ezkerokoan. Ikusi zeban, Jauna, zelan bein, oraindik umea nintzala, otoz-otoan sabeleko miñekaz ie-ie ilteraño estutu nintzan. Ikusi zeban, Jauna, ordurako be neure yabolea ba-zintzazan-da, zelango biotz-zaletasunaz eta siñismenagaz eskatu neuntson neure ama yaungoikozaleari ta gustien Ama Doibatza'ri zeure Seme neure Jaun eta Jaungoikoa'ren ugutza. Eta nire aragi-ameak, lafituki (zeure siñismenean biotz garbiagaz nire betiko osasuna señegin-gura biziagoa eukan-da), iraduz be iraduz egingo ebazan alegiñak ni ikuñton osasuntsuak artzen asi nendin, eta eureka garbitu nendin; zeu, Josu Yaunoi obenen azkespenerako autoñtuta, bertatik obeto yafi ezpa'nintz. Atzeratu egin zan beraz: ni garbikundea, oraindik ni, bizitekotan, loiagotzea beaf bai'litzan; garbikundea-ondoan obenen loietan efu aundiegoa ta kaltegariegoa izan be izango zala-ta.

2. Nik beraz siñisten neban, eta amek eta etxe osoak be bai, aiteak ezik, eta ofaitio aiteaganako lotseak eta maitasunak ezeutson gejo egin nire biotzean neure ama yaungoikozaleaganako maitasunari eta eraspenari, ta etxatan izan eragozpide Kisto'gan siñisteko, aiteak berak oraindik

siñisten ez ebanafen. Neure amek alegiñen-alegiñak egiten ebazan ba zeu, neure Yaungoikuoia nire aitea baño aiteago izan zintzakidazant-at: eta onetan zeu zintzakozan lagun neure ameari, senafari geiagiegiontzat, eta neure aiteari obeak otsein egiten eutson, aonetan be, neure amek zeuri, ori agintzen zeuntson oferi, otsein egiten eutzun-da. Afen, ene Jaungoikoi, yakin nai neuke, zerofek be nai izanezkerro, ze asmogaz atzeratu ninduben orduan ugutzaka isteko. ¿Ala neure onerako nasaitu lez egin yatazan obenerako lokafiak, ala etxatazan nasaitu? ¿Zer dala-ta dantzugu ba orain be nainondik oneitaz eta areitaz esakun au: Itxi egiok, egin dagiala berak nai dauna, oraindik ugutzaka yagok-eta; eta ofaitio gorputzaren osasuna danean eztozu esaten: itxi, zauritu dadila geiago, oraindik eztoz osatu-ta? ¿Zenbat obeto ta lenago osatu izango nintzan, eta au neure ta neurien ardareagaz egin izango zan, zeuk zerofek neure gogoari emon zeuntson osasun bein artua zeure zainpean eskief (seguru) egon zedin. Askoz obeto, bai orixe. Baña zenbat ziltzaldi-ugiñek eta zelangoak zematuko ninduben umearoaren ostean ba-ekian ak amek: (1) eta zeure ardurapean itxi nai ebazan bai aik (ziltzaldi-ugiñak?), gero euren bidez eraldu nendin, eta bai irudia (gogoa?) bera.

(1) Leku au oso iñuna ta ulerkatxa da, ta ba leiteke utsunien bat izatea, ala itzak lekubiauta egotea be. Azke zara, irakufle maite, itzok al dozunez azaltzeko.



# AURELI AUGUSTIN DEUNAREN AUTORPENAK

## AMAIRU IDAZTITAN

### XII ATZALBURUA

1. Eta umearoan bertan (nire mutila-roari baño bildur gitxiago yakon umearoan) enebazan maite eleftiak, eta iguin gofoto neuntson inok euretara estutu-eragiteari, oraitio baña estutu egiten ninduben, eta ondo egiten eusten, neuk baña eneban ondo egiten, eneban ikasiko eragin ezpaleuste-ta. Inok eranginda ta gogoaz bestera inok ondo egiten eztaulako dagiana ona izanafen be. Eta niri eragiten eustenak be ezeben ondo egiten; zeu zerrori zintzazan ene Jaungoikoa ondo egiten zeunstana. Niri ikasi eragiten eustenak ezeben beste asmorik txirotasun aberatsaren eta eta aintza laidotsuaren gurari aseगतak asetzea baño-ta.

2. Zeuk baña *geure buruko ule gustiak zenbatuta daukazuzan* otek nire onerako biurtzen zeban ikaziazoten eusten gustien uste okefa, ikasi nai eneban neronena bafiz neure oben-nekerako ta zigof-erako, eta neke-zigof au ain umetxoa ta ain obenditzafa nintzan aoneri egoztea etzan bidegabekeria. Aolan ondo egiten ezebenen bitartez zeuk ondo egiten zeunstana, eta neuri oben egiten neban aoneri bidez eta zuzen emoten zeunstan ordea. Zeuk agindu zeban-da olantxe da izan be;

zuzen eztabilen gogo orori berbera neke-zigofa izan dakiola.

### XIII ATZALBENA

1. Zer zala ta gofoto neutson umetxotan irakasten eusten gerkeleftiari, oraindik be eztakit ondo. Maite-maite neban ba lateleftia, ez baña arako lelengo irakasleak irakasten dabena, Elizti-zaleak deritxenak irakatsi daroena baño, a lelengo eleftia ba irakurten, idazten eta zenbaitzen ikasteko dana, gerkelefti gustiak bestean aztun-neketsu egiten yatan. ¿Eta nondik etofen au obenetik eta bixitzearen uskeritik baño? *Aragia, ta yoan eta etofi ez egiten dan axea nintzan da.* Eta izan be a lenengo eleftia (bere bitartez gai izateko bidean nengoan, gai izan naz eta gai naz, bai idatzita aurkitzen dodan oro irakurteko, ta bai nai dodana idazteko) eskieragoa zalako obea zan, neronen ibilera okefak aztuta eztakit nongo Aineia'renak be sinistuzoten eustazan a bestea baño, eta, ene bizia zaran Jaungoikoa, onelako gauzetan zeuganako iltzer nengoan bitartean, neuk efukañi-efukañi onek neure eriotzea begiak bustitzeka eroanda, bere burua maitasunafen il eban Dido'taz negar eragiten eustana baño. ¿Zer ba efu-

kafiagorik bere buruagaz efukitzen eztan efukaria baño, eta Aineia'ganako maitasunaren il zan Dido'ren eriotzeari negar eginda, zeu ez maitatzearen ilten dan no bere buruari negarik ez egitea baño?

2. Neure biotzeko argia, eta neure gogoaren baruko aborako ogia, ta neure adimena ta neure oldozkunaren okulu-sabela ezkondu ta sendu egiten dozuzana zaran Jaungoikuo'i nik etzindudazan maitete; eta zeugandik lizunduten (1) nintzan, eta lizunduten nintzan onen alde gustietan etzan entzuten besterik, *ori ori* baño, *ludi auganako aizkidetasuna* zeugandik lizundutea da-da. Eta *ori, ori* esaten dautsoe gizonari, olangoxea ezpa'da lotsatu dadin. Eta onei negarik egin ez-ta, negar egiten neuntson Dido *ilari ta expateaz atzenera* (eriotzara) *yo ebanari*, neronek, zeu itxiki, zeuk egin zebazan gauzarik atzenengoetara yota; eta aik irakurtea galazo ba'leuste, min artu izango neban, zetzaz mindu ta efukitu, irakufiko enebalako. ¡Au zorakeri au idazten eta irakurten irakatsi-eustan eleftri beñagotzat, bikañagotzat eta ugeriegotzat esten zan!

3. Orain baño, ene Jaungoikoa, zeure egiak neure gogoari gedar begio ta esan begio: Eztok olan, eztok olan, oso ohea dok a lenengo ikaskizuna. Eta izan be aragertuago nago Aineia'ren ibilera okefak eta beste olangoak aztuteko, idazten eta irakurten baño. Ba'leiteke baño batobatek

(1) Lizunduten dan gizona bere emaztea itxita, eztagokon emakumeagana doan lez, olantxe obendia Jaungoikoa itxita, izakietara doa bete-bete; Jaungoikoagandik lizundu, alde dagi.

esatea: oyalak yagozak dingilizka elizti-ikastoletako ate buruetatik; oyalok baño ixilkizun edo sadofkizunaren lotsea adirazoteko baño geiago dira uste okefaren estalkia adirazoteko. Eztagiela zarata nire aufka, bildufik eztautsedanok, neure gogoak nai dauna dautortzudanaftan, ene Jaungoikoa; eta neure ibilera txafak, zeure leide onak maitatzeko, txafetsiaz atsedena idoroten dodanaftan. Ezpegie nire aufka zarata egin elizti-saltzaleak ala erosleak; oleskariak (Birgili'k) diñonez Aineia iñoz Kartago'ra etofi zala egia dan itanduten ba'dautset ba, gitxixe dakienak eurak eztakiela erantzungo dauste, yakitunenak bariz, ori egia dala ukatu be egingo dauste.

4. Itanduten ba'dautset baño Aineia'ren izena zeintzuk izkiakaz idazten dan, egia esango dauste gauzok ikasi dabezan gustiak, gizonak euren aftenan ikufotaz egin daben itunbenaren eta eretxiaren arauz. Baita itanduten ba'dautset, idazten eta irakurten aztuteak ala olefkar-asmakun-ames aik aztuteak lekafskigun kalte aundiegoa bizitz aunetan jnok eztakus zer erantzungo daun bere buruagaz osoro aztu'a eztagon orok? Oben nengian beraz ume onek aik gauza uts-irolak eta ezteusak, oneik oneratsuaguok baño geiago, maitatuaz; ala obeto esatearen oneik gofoto nebazan, aik maite. Eta izan be arako bat eta bat bi, bi ta bi lau, leloa iguin eta gofotografi yatan; oso gozo-eztitsua bariz uskeri-ikuskizuna, zurezko zaldia izkiludunez beterik; eta Troya-efetea, *eta Kreusa berberaren kerixea*.

**Lafakoetxea'taf Bedita Jon, L. A. L.**

*Qñat' tik 1925'ko bagilako 5'g'n.*

# AURELI AUGUSTIN DEUNAREN AUTORPENAK

## XIV ATZALBURUA

1. Zegaitik gofoto neuntson ba gerkaŕen Eliztiari berari be, olangoxeak goraltzen dauz-ta? Eta izan be Homeros antzetsua da olango ipuñak asmau ta eunduten, eta oso ez titsu da uts-irola; niri umeari baña samiña yatan. Birgili be Hellas'ko (1) umeai izango yakela deritxat, niri a lez ikasiazoten ba'dautse, arean nekez. Efbesteko ele edo izkuntzea ikasteko gaiztasunak ipuin edestizunen gerkaŕ ez titasun gustiak beztuneztetan ebazan. Aretaiko itzik deusik be eneban ezautzen-da: eta ikasteko gogof be gogof estututen ninduben, zigof eta bilduf gofiekaz. Laterazkoak be beñola (seña nintzanean) enebazan ezautzen, ofaitio baña gerora aditasunaren bidez ikasi nebazan, bildufik eta onazerik areanbarik, baita inudien lantanen artean, eta bafe egiten eustanen yolasarte an eta neugaz kirolak egiten ebezanen poztasunen artean be.

2. Eta estututen dabenen zigof-onazebarik ikasi nebazan aik, neure biotzak bere usteak agertzeko estututen nindunda: eta usteok ezin agertu nengikezan, itzen batzuk ikasi ezik, eta ez irakaslegandik, itz egiten ebenakandik baño, eta neronek be onain belafietara ixuri nai neban bafuan asmatzen neban oro. Emendik argirik asko agiri da gaiago ta egokiago dala oneik ikasteko berezko yakingura

1. *Hellas* eŕderazko *Grecia* da. *Homeros* bañiz elastaŕ edestizungin eta oleskari ospatsu-ospatsua, beste edestizun eta elerkien artean «*flias*» eta «*Odysseia*» ren egilea. *Birgili* bañiz efomataŕ oleskari entzutetsua.


azkea, beafkun bildurtsua baño. Baña yakingurearen erio-aldakoŕtasunari beafkunak eusten dautso zeure lagiekaz Jaungoikuoi; zeure lagiekaz irakaslien makilatik asita ziño paen ziltzaldietaraño: zeure lagiek gai dira ba samintasan osasungafiak nas tetako, zeugandik aldendu gindubezan atsegintasan izufitsuetatik geu zeugana tuteko.

## XV ATZALBURUA

1. Entzun, afen, Jauna, neure biotza ren eskaria, eta ez al da aunatuko neure gogoa zeure irakaspenpean, ez al dau meko-egingo zeure irakaskintzapean; eta ez al dot egundo be uko-egingo eurekaŕ zeure bide oso galduetatik atera ninduzun ofen efukiak autoŕtzen. Zeu askoz be gozoago izango al zatxataz nik yafaitzen nebazan guzufeŕzko atsegin gustiak baño, eta bixiro maitatuko al zaut, eta neure indaf gustiekaz oratuko al dautsot zeure eskuari, atzeneko arnasaraño ziltzaldi gustietatik atera nagizun.

2. Eta zeu neure Jauna ta bakalduna zaranezkero, zeuretzako izan daitela nik umetan ikasi neban gai oro, zeuretzako izan daitela diñodana, didaztana, dirakufdana ta zenbatzen dodana, gauza utsak ikasten neragoionean zeuk zigof tetan ninduzulako, eta gauza uts areitan aftu nebazan atsegin-obenak azketsi daustazulako. Areitan itz on-gairik asko ikasi nebazan, baña itzok gauza utsak ez tiranetan be ikasi daitekez, eta au da bide bildufba koa, umeak ibilteko.

Lafakoetxea'lar Bedifa



# AURELI AUGUSTIN DEUNAREN AUTORPENAK

## XVI ATZALBURUA

1. ¡Baña gizon-ekandunezko. (1) ibaitzar kaltegarñoi! ¿Nok eutsin iri? ¿Nozaf-teño ez ete-az legoñtuko? ¿Nozafte eroango ete-dozak Ebe'ren seme-alabak bilin-balanka eguñ-ganera (2) igoten dabenak eurak nekez eta ozta-ozta igaroten daben itxasotzar bilduñgarira? ¿Ala nik enayuan irakufi euregan Jupiter ostoska ta ezkontza-loñtuten? Eta onaik biok ezin egikezan, edo bata edo bestea; egintzat asmauziran bana, aolan egiazko ezkontza-loitzeak, guzuñezko ostotsak txera ona eginda, antzafututeko goi-eredua euki egian. ¿Zein yakintzarik entzungo dau baña adi ta artegatubarik euretariko batek zarataka diñoan au: «Homeros'ek asmau egiten ebazan onaik; eta gizonenak yaungoikoai egozten eutsezan, obeto yaungoikoenak egotzi ba'leuskuz?» Egia da izan Homeros'ek gauzok asmau ebazana, baña gizon galduei yaungoikoenak egozten dautsez, gizon galdutzat iñok euki eztaizan. Eta

(1) Ekandu kaltegarñi au umetxo garbi-efugeai irakufñgai loiak irakufi ta ikasiazoteko ekandu zoritxarñekoa da.

(2) Emen *eguragaz* Josu-Kisto gure Jauna'ren kurutza deuna adirazten da, Josu-Kisto'ren kurutzeagaz eta eskaragaz be ozta-ozta iges egiten da ludi onetan lizunkeritik-eta.

laidogarñiren bat egiten ebanak yaungoikoen antzera egin ebalá burutandu egian, ez gizon galduen antzera.


2. ¡Eta oraitio gaiztoki-ibaitzar ofena! Eugana yaurtiten yoezak gizonak euren buruak gauzok ikastearen emoten yoezan sari-ta gusti; eta gauza anditzat esten da au agirian zein-enparantzan, eta alogeraren ganetiko sari-besuzak emoteko agintzen daben lagien baimenagaz egitea. Eta eure añiei eta añmolai alkar yoazota otsa atereaz aro be aro diñok: emen ikasten dira itzak, emen loñtzen da andiro itz-egike-rea, gauzak ziñistuazoteko ta eretxiak azaltzeko beañ-teañekoa. Terenti'ren gazte lotsagalduak Jupiter iminten dau lizunkeriyañbidetzat: orman *margoztuta dagon lauki batera begira dago* gazte au, eta *ormako laukiak azaltzen dau zelan, diñoenez, beñola Jupiter'ek atzipetu eban Danae emakumea bere altzora uñezko iñontza bidalita*. ¡Eta ara zelan ixituten daun bere biotzean iritsa, goitik irakatsita lez! *Ori dagiana Jaungoikoa da—diño berekautan—¿Baña zein Jaungoiko? Ez edozein, ortzi-sabaiak ostoska ikeratzen dauzana berbera baño. ¿Eta nik gixontxo onek eztot egingo beste ainbeste? Bai neronek be beste arenbeste egin neban, eta gogoz alan be,*

¿Eta ez ete gebazan ikasi izango *ufezko inontza, altzoa, atzipetu, ortzi-sabai* ta an dagozan beste itzak Terenti'k gazte lotsagaldu arek ageitu ezpa'leusku?

3. Beraz edestizun loi onen bidez e-tira itzak obeto ta ezezago ikasten, baña, bai da egiten lotsa gitxiagogaz lizunkeri au itzon bidez. Eztautset emoten e'urik itzai, eurak ontzi ede'ryoriak lez dira-ta, ontziotan guzur - irakasleak edanazoten

dauskuen guzur'ardoari baño; eta edan nai ezpa'geban zigortau egiten gindubezan: eta ezegoan edanbako epalegana yoterik. Eta ofaitio zeure afean gauzak eskief eta bildur'ge gogoratzen dodazan ene Jaungoikuoi, nik gogoz'ikasi nebazan gauzak, eta efuka'ri onek euret'an atsegin artzen neban, eta augaitik itxaropen aundiko umea ereisten eusten.

**Lafakoetxea'lar Bedi'a Jon L. A. L.**



AMA BEGONAKOA



# AURELI AUGUSTIN DEUNAREN AUTORPENAK

## XVII ATZALBURUA

1. Itxi egistazu, Yauna, zeure eskef edo emaitza dodan neure adimenatzaz be zerbait esaten, zelango zorakerietan ebalten neban esaten. Nire gogoa goralbenezko sari-itxaropenez, edota laidoaren eta zigofaren bildufez, asko arteगतुको eustan arazoa egoki eusten ganera: *Troya'taŕen Bakalduna Italia'tik ezin uxatu ebalako* asafatuta eta minduta egoan Yunoren berbak esan nengizala, berbok Yunok iñoz ez ebazala esan entzun nebanafen. Baña bidea galduta oleskari-asmakunen lofatzak jaraitu azoten euskubezan, eta itz lauz oleskariak itz neurtuz esan izango ebanaran antzekoren bat esanazoten euskuben. Eta gogalkun egokiak itzez yantzita, berak antzaftuten (1) eban notiñaren gaitasunari egokozan asafearen eta miñaren antzerago beragan asafe-miñak agertzen ebazanak esaten eban ondoen eta txalogarien.

2. ¿Zer daust n'ri aregaitik, ene egiazko bixia zaran ene Yaungoikuoi? ¿Ze on datofkit ni neure politico esateagaitik neure adinbardin eta ikaslagun asko baño lenago txalotutetik? ¿Ala eztira aik gauza gustiak kea ta axea? ¿Ez ete egoan nire adimena ta nire miña non ebal bezterik? Zeure goralbenak, Yauna, Idazti deunetako

(1) Antzaftu=antza aftu norbaitena zetan edo atan; (2) ¿Zer dauko zer ikusirik gure biotzat matsadaŕagaz? Bai ta asko: izan be ba matsadaŕa axeak batera ta bestera siboka darabiñen lez; otantxe darabiñe gure biotza bere lera-leia lurkoiak, Yaungoikoa isten daunean. (3) Emen egazti-ixenagaz gokaizto edo txefenak adirazten dauz Augustin Deunak.

zeure goralbenak geldi euki izango eben neure biotz-matsadaŕa (2) eta iñozokeri-uskeriak ezeben eroango, egaztien (3) yanari lotsagaŕia izateko. Era batez bakariŕik etxake egiten ba opea gokaiztoai.

## XVIII ATZALBURUA


1. ¿Aundia da ala ni uskeri-zorakerien yaŕai bete-betea ainbesteraño joatea, eta zeugandik ene Yaungoiko oregandik alde-egitea, euren egiñen txafa etzanen bat erbesteitzen bat nastauta, ala euren izkuntza-lagiak ausita edestuten ba'eben, besteak ori txafesten ebelako lotsatuta, euren lizunkeriak baŕiz itz egoki-bete-yatofakaz, ugeri ta txairo yantzita edestuten ba'ebezan, oregaitik joten jakezan txalokaitik aŕotuta gelditzen ziran gizonak eredu ta antzaŕitzaŕ begien aŕean iminten euskubezanezkero? Au gusti au ba-dakuzu zuk, Yauna; eta ofaitio ixilik zagoz, *biotz-zabal, efukioŕ utsa, ta egitia zara-ta*. ¿Beti ete-zagokez baña ixilik? Orantxe be lezatar sakon itzel aonetatik zeure bila dabiñen eta zeure atsegiñen egaŕi dan gogoa ateraten dozu, baita biotzez: *Zeuarpegi-bila ibili naz, zeure arpegi-bil, Yauna, beti nabilke diñotzuna be*. Zaletasun ilunbetzuz zeure arpegitik urindu nintzan-da.

2. Zeugandik aldendu, naiz zeugana atzera etofi ezta egiten ba oinkadaka ta batetik bestera lekua bitaŕte dala. ¿Ala arako a zure seme gaztiena zaldien, burdien, ala ontzien bila ibili zan, edo-ta ego agiriŕiekaz egaz egin eban; edota oñal eraginda bidea egin eban, an urinean zeuk urteieran emon zeuntsona eralgi ta onda-

tuteko? Alta gozoa izan zintzakozan, emon zeuntsolako, baña askoz be gozoa goa txiro, aflote ta bilusik atzera etofkizunari. Beraz lizunkeri-zaletasunak eroan eban, au da zaletasun ilunbetsua, ta au zure arpegitik ufin beta. Begiratu, Yau-na, ta, oi dozunez eroapenez begiratu zelangor ardureagaz yaboten dabezan gisasemeak lenagoko irakasleak izki-izkiñak ondo eballi ta oguzteko itxi dautsezan arauak eta itunbenak, euren betiko osa-

otoa baño kaltegafiago bailitxakio; edota inok besteren bat yazafiaz, dautson areriotasunagaz bere biotza zuzituten daun baño geiago zuzituko bailleu.

3. Eta ziñez bafurago idatzita dagoku guregan *euretzako nai eztokana*, *besteri ez egin* agintzen dauskun lagia, izki-yakintzea baño. ¡Zure ezkutua, goietan ixilik bizi zarana ta aundi bakaña zaran Yaungoikuo! leia ziflegi eztiranen gain nekezko itsutasunak lagi uts-bakoagaz



**Lekeitio: Isuntza**

(Foto Ajubita).

sunerako emon dautsezuzan lagi ta itunbenai, ostera, zelan yaramonik egiten eztautsen. Ain zuzen be lenagoko eliztilariak itxitako elizti-lagiok dakizanak ala irakatsi be egiten dauzanak, elizti-lagiok ausita esan ba'dai lateraz *ominem* (gizon) eta gure Laburdi-euzkelgiz *aragia*, lelen-go izkiñean arnasa-gorakadea egintzaka, atsege geiago emongo dautse gizasemeai bera gizona izan-da, zeure aginduak ausita gizona gofoto ba'dai baño. Gizon areriorik areri bere biotzean dautson efa-gor-

zabalduta! Ara, gizonak (gizon epalearen aurrean, bere bilaldean (inguruan) gizon-piloagaz, bere arerioa amofu itzalez salatu ta yasaftuki) iztun-ospa-bila ba'dabil, ardura aundia euki daroa oartzaka ta miñak uts eginda lateraz *inter hominibus*, eta euzkeraz *arfean gizonen* esan eztagian, eta deusik eztautso ardura bere odol-beroaldian gizona gizon-artetik kendu eztagian.

**Lafakoetxea'ar Bediña Jon L. A. L.**